



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2019KO MARTXOAREN 28AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga
Juan Luis Cid Conde

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hemeretzi martxoaren hogeita zortzi** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2019ko urtarrilaren 31an egindako Ohiko Udalbatzaren bilkuraren aktaren onarpena**
- 2.- 037/2019tik 117/2019raino Alkate Dekretuak jakinaraztea**
- 3.- 2019ko martxoaren 25ean buruturiko Ogasun Batzordearen irizpenen inguruko erabakiak**
- 4.- Ibarra Udalaren Izapide Administrazioaren Eskuliburuaren onarpena**
- 5.- Galdera eta eskaerak**

2019/03/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA:

1. 2019KO URTARRILAREN 31AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2019ko urtarrilaren 31ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2019ko urtarrilaren 31ko ohiko bilkurako akta

BIGARRENA:

2. 037/2019TIK 117/2019RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2019ko urtarrilaren 31tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 037/2019tik 117/2019ra

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

HIRUGARRENA

3.- 2019KO MARTXOAREN 25EAN BURUTURIKO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUKO ERABAKIAK

3.1 2018 URTEKO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

2019/107 Alkate Dekretuaren berri ematen da non alde batetik eskubide ez arrazoituen deuseztapena onartzen da eta bestetik aldiz 2018 urteko aurrekontuaren likidazioa onartzen da.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

3.2 HASERAKO ONARPENA 2019KO 1ENGO KREDITU GEHIGARRIARI

2019/03/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ogasun eta Kontu Berezien batzodeak 2019ko 1. Kreditu gehigarria onartzeko proposamena egiten dio Udalbatzari.

2019ko martxoaren 25eko Ogasun Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (5 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea 2019ko 1. Kreditu gehigarri motako kreditu aldaketari:

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 06.153.20.601.02 2019	ASFALTATZE LANAK HERRIAN	0,00	55.500,00	55.500,00
1 06.153.40.219.00 2019	KONPONKETAK: HIRI-EKIPAMENDUAK	6.300,00	30.000,00	36.300,00
1 06.323.00.219.01 2019	MANTENTZEA: HAUR ESKOLA	2.500,00	13.000,00	15.500,00
1 06.326.30.219.01 2019	MANTENTZEA: MUSIKA ESKOLA	1.700,00	3.000,00	4.700,00
1 06.342.00.219.01 2019	MANTENTZEA: KIROLDEGIA	14.500,00	7.300,00	21.800,00
1 06.231.40.219.01 2019	MANTENTZEA: EUSKAL HERRIA 18-2	10.000,00	5.200,00	15.200,00
1 06.450.00.210.00 2019	KONPONKETAK: BIDE-AZPIEGITURA	50.000,00	20.000,00	70.000,00
1 06.153.20.601.03 2019	EH45 PARKEA	40.000,00	5.000,00	45.000,00
1 05.153.20.601.01 2019	EMETERIO ARRESE	115.000,00	20.000,00	135.000,00

2019/03/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	URBANIZAZIOA			
1 05.450.00.643.01 2019	HIRIGINTZA PROIEKTU ERREDAKZIOA	7.000,00	31.565,00	38.565,00
1 08.165.00.623.02 2019	UDAL INBERTSIO ELEKTRIKOAK	45.000,00	20.000,00	65.000,00
1 04.011.00.933.01 2019	MAILEGUAK AMORTIZATZEA	180.000,00	100.000,00	280.000,00
1 03.920.00.226.04 2019	AHOLKULARITZA ZERBITZUAK	23.000,00	6.000,00	29.000,00
1 03.162.10.600.01 2019	IZASKUNGO LURSAILA EROSTEA	0,00	12.000,00	12.000,00
1 06.342.00.221.00 2019	KIROLDEGIA INBERTSIOAK: MAKIN. MATERIALA	0,00	10.000,00	10.000,00
1 07.231.50.227.01 2019	KONTRAT: GENERO BERDINTASUNA SUSTATZEA	15.000,00	2.263,92	17.263,92
1 07.231.00.227.04 2019	FAMILIA ARRISKUEN JARDUERA	8.000,00	3.400,00	11.400,00
1 06.164.00.227.99 2019	KANPOKO BESTE LANAK: HILERRI KUDEAK	14.700,00	5.153,00	19.853,00
1 02.133.10.227.02 2019	SEGURTASUNA: OTA ZERBITZUA	30.000,00	6.000,00	36.000,00
1 03.920.00.227.08 2019	UDAL PLANTILAREN DIAGNOSIA	6.000,00	10.000,00	16.000,00
1 06.153.40.221.11 2019	TRESNAK ETA ERREMINTAK	2.000,00	1.900,00	3.900,00
1 10.342.00.643.01 2019	KIROL PLANA IDAZTEA	0,00	8.000,00	8.000,00
1 09.334.20.481.00 2019	TRANSF: ALURR DANTZA TALDEA	2.000,00	13.000,00	15.000,00
1 08.170.00.210.01 2019	BERDEGUNEAK KONP, MANT ETA KONTSERB	4.000,00	11.000,00	15.000,00
1 09.337.20.226.06 2019	JARDUERAK: GAZTERIA	3.000,00	2.400,00	5.400,00
1 08.170.00.210.00 2019	KONPONKETAK: HERRI BIDEAK ETA PANELAK	7.000,00	2.000,00	9.000,00

2019/03/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1 08.431.00.226.06 2019	JARDUERAK: MERKATARITZA	3.000,00	4.000,00	7.000,00
1 08.454.00.692.01 2019	IZASKUN AUZOKO IBILBIDEA: HOMOLOGAZIOA	0,00	5.000,00	5.000,00
1 06.920.00.623.02 2019	UDAL ERAIKINEN ARGITERIA HOBETZEA	0,00	3.500,00	3.500,00
1 05.153.20.601.02 2019	EMETERIO ARRESE PLAZA	0,00	20.600,00	20.600,00
1 03.929.00.500.01 2019	KREDITU GLOBALA	20.209,65	30.000,00	50.209,65
GUZTIRA		609.909,65	466.781,92	1.076.691,57

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 03.000.00.870.01 2019	DIRUZAINNTZA GERAKINA GASTU OROKORRAK	466.781,92
FINANTZAKETA GUZTIRA			466.781,92

BIGARRENA.- GAO on argitaratzea, 15 eguneko jende aurreko epea ezarriaz. Inolako alegaziorik izan ezean, behin betiko izaerarekin onartua geratuko da.

3.3 BPXPORT ENPRESAREKIKO ZOR EXTRAJUDIZIALA ONARTZEA

2019/03/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontuan harturik 2013ko udazkenetik 2014ko iraila bitarte, Udaleko Alkate zen Jesus Peñagarikanok, polikiroldegiko arduradunaren baja egoera zela eta; eraikina irekita egoteko atezaintza zerbitzuak burutzeko BPXORT enpresa kontratatu zuen (ez ohiko eta aurreikusi ezin zitekeen egoera bezala).

Egoera honen ondorioz, zerbitzu hauek burutu izanagatik diru kopuru bat ordaintzeko gelditu zen eta ez ziren ordaindu.

Kontuan harturik, BPXPORT enpresak 2016an luzatutako ordainketa eskaera egin zuela eta egun udal Idazkariak horren inguruko txostena egin duela zor extrajudiziala dagoela adieraziz.

Ikusirik udal Kontu hartzaitzaren txostenak ere aldeko iritzia agertzen duela.

2019ko urtarrilaren 25eko Ogasun Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- 16450,89 euroko ordainketa onartzea BPXPORT enpresaren alde, Udalak 2014 urtean izan zuen bidegabeko aberasteari erantzuteko, zehazki 2013ko udazkenetik 2014ko iraila bitarte.

BIGARRENA.- Kontuhartzaitza departamentuari ordainketa egitea eskatzea.

LAUGARRENA

4.- IBARRAKO UDALAREN IZAPIDE ADMINISTRATIBOEN ESKULIBURUAREN ONARPENA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018. urte bukaeran Ibarra Udala erabaki zuen prozesu bat abiaraztea, administrazio-prozedurak; berrikusteko, arrazionalizatzeko eta errazteko. Helburu nagusia, herritarren arreta zerbitzua diseinatu, antolatu, eta herritarrei zerbitzua egokiena ematea da. Horretarako, tresnak jarri nahi dira, herritarrek udalera iristeko erraztasuna izan dezaten eta herritarren eta udalaren arteko komunikazioa eta harremana errazagoa izan dadin.

Helburu edo xedea betetzeko, ezinbestekoa izan da Ibarra Udalean administrazio-prozedurak berrikusi, arrazionalizatu eta erraztea. Modu honetan, aurrez aurrekusi gabe zeuden izapide eta prozedura denak batu eta horiek agiri batean jaso ditu, behargabeko luzamenduak saihestu eta zama administratiboak murrizte aldera.

Ibarra Udalaren Izapide Administrazioen Eskuliburua” izeneko agiri honek modu antolatu eta sistematikoan jasotzen du, Ibarra udalaren administrazio-izapide guztien funtsezko informazioa. Besteak beste, honako eduki hauek jasotzen dira, herritarrek ondo ulertzeko hizkuntzan:

- Prozedura bakoitzaren esanahia.
 - Nork eska dezakeen.
 - Aurkeztu beharreko dokumentazioa.
 - Zer bitartekoren bidez izapidetu daitekeen.
 - Betebehar ekonomikoak, halakorik izanez gero.
 - Izapidetzeko epea.
 - Araudia.
- Bete beharreko dokumentuen ereduak, halakorik izanez gero.

Eskuliburua kudeatzeko, IZFEk proposaturiko tresna informatiko bat erabili da: ZERBIKAT, alegia. Tresna honekin prozedurak estandarizatzea eta sistematizatu dira, eta etorkizunean prozedurak etengabe eguneratzea ahalbidetuko.

Prozeduren eskuliburuarekin helburu hauek lortu nahi dira:

- 1.- Ibarra Udalaren dokumentazioa egokitu, antolatu, erregistratu eta herritarrei aukera ematea izapideak eroso, zalantzak argituz eta modu egokian egin ditzaten.
- 2.- Etorkizunean Herritarren Arreta zerbitzua ezartzeko lehen urratsa ematea. Modu honetan, sistematizatu egiten da prozedura eta modu berean leihatila bakarren printzipioa beteko da.

2019/03/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 3.- Lan egiteko moduak estandarizatu eta normalizatu
- 4.- Herritarrei ematen zaizkien zerbitzu publikoetan kudeaketa eraginkorragoa eta kalitatezkoa lortzea.
- 5.- Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren kultura sartzea antolakuntzan
- 6.- Prozeduran kudeaketa administrazio elektronikorutz pausoak ematea, egun dagoen araudian eskatzen dena betez.

Eskuliburua prestatzeko prozesua 2018ko 2019ko martxoak bitarte garatu da; horretarako, ordezkari politikoek eta departamentu guztietako teknikari eta administrariak hainbat saio egin dituzte. Haien parte-hartze eta ahaleginik gabe ezin izango genukeen prozesua gauzatu.

Halaber, proiektua egikaritzeko garaian aintzat hartu dira, beste herrialde batzuetako eskuliburuak ere; Pasaia, Donostia, Andoain, Legazpia...

Udalak bete egiten du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 53. artikuluko f) atalean bete beharrezkotzat ezartzen den eskubidea, hau da: herritarrek orientazioa eta informazioa eskuratzeko eskubidea, egin nahi dituzten proiektu, jarduera edo eskaerarako indarrean diren xedapenek ezartzen dituzten baldintza juridiko edo teknikoei buruz; Udalak herritarren esku jartzen dituen komunikazio-bideen bitartez; eta herritarrei informazio unibokoa, ofiziala, ulerterraza ematea, idatziz, herritarrek udal administrazioarekin harremanetan jartzeko aukeratzen duten bidea edozein dela-ere.

Bestalde, eskuliburuak bete egin du Lege horren 21.4. artikuluan ezartzen den betebeharra: "Las Administraciones Públicas deben publicar y mantener actualizadas en el portal web, a efectos informativos, las relaciones de procedimientos de su competencia, con indicación de los plazos máximos de duración de los mismos, así como de los efectos que produzca el silencio administrativo".

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea eskuliburua ez dela behin betiko agiri bat, etengabe egokitu beharko zaie lege-aldaketei eta Udalaren beraren antolaketa-aldaketei.

2019/03/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Guztia kontuan izanik, Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Onartzea Ibarra Udalaren Izapide Administrazioaren Eskuliburua, ZERBIKAT aplikazio informatikoan argitaratua dagoena. Prozeduren eskuliburuak era antolatu eta sistematikoan jasotzen du udalaren administrazio-izapide guztien funtsezko informazioa, herritarrei zuzenean eragiten diena, hartzailerek erraz ulertzeko moduan azaldua:

Prozedura bakoitzaren esanahia.

Nork eska dezakeen.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Zer bitartekoren bidez izapidetu daitekeen.

Betebehar ekonomikoak, halakorik izanez gero.

Izapidetzeko epea.

Araudia.

Bete beharreko dokumentuen ereduak, halakorik izanez gero.

BIGARRENA.- Administrazio-prozeduren eskuliburua onartzean helburu hauek lortu nahi dira:

1.- Ibarra Udalaren dokumentazioa egokitu, antolatu, erregistratu eta herritarrei aukera ematea izapideak eroso, zalantzak argituz eta modu egokian egin ditzaten.

2.- Etorkizunean Herritaren Arreta zerbitzua ezartzeko lehen urratsa ematea. Modu honetan, sistematizatu egiten da prozedura eta modu berean leihatila bakarren printzipioa beteko da.

3.- Lan egiteko moduak estandarizatu eta normalizatu

4.- Herritarrei ematen zaizkien zerbitzu publikoetan kudeaketa eraginkorragoa eta kalitatezkoa lortzea.

5.- Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren kultura sartzea antolakuntzan

6.- Prozeduran kudeaketan administrazio elektronikorutz pausoak ematea, egun dagoen araudian eskatzen dena betez.

2019/03/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Era berean, sail bakoitzeko arduradunak bere gain hartuko du saileko izapideen informazioa ZERBIKAT aplikazio informatikoan etengabe eguneratzeko zeregina.

Indarreko prozeduren eskuliburua beti izango da ZERBIKAT aplikazio informatikoan argitaratua dagoena

HIRUGARRENA.- Ibarra Udalaren prozeduren eskuliburua udalaren egoitza elektronikoan argitaratzea, teknikoki ahal denean.

BOSGARRENA

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

EAJ-ko zinegotzi den Itziar Jauregik, 2019 urteko hauteskundeak ospatzeko aukeratu den "Txontxo lokala" irizgarritasun aldetik lokal egokiena ez dela adierazten du.

Udal idazkariak adierazten du printzipioz lokalak bere ustez irizgarritasuna betetzen duela, lokal atzekaldean malda txikia dago "pasamanos" delakoarekin eta gainera beste aldean ere karrotxoak eta aulki mekanikoak igotzeko ranpa ere badagoela.

EAJak eskatuta Junta Electoral-ari eskatuko zaio ea aukera dagoen lekuz aldatzeko.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta berrogei direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2019/03/28



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2019/03/28

11